

Zebairri?

1999
UZTAILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

32 zkia.

Urkatik Landetara

Eskoriatzarrok Munduan
Maixabel Goikolea,
Ekuadorren osasun laguntza ematen

Edoria Zubizarreta
jada alkate lanetan

Akanpadak Alabitan eta Degurixan



**HAUEK BAI
SAN PEDROAK!**



Esko Sport

*Kirola eta sport
moda Leintz
bailaran.*

Tel. 943 715296

ALDATZ Taberna

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

Argitalpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

*fundazioa
fundación*

BEIRALAN



- ◇ Komunerako altzari eta manparak
- ◇ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◇ Beirate artistikoak
- ◇ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☐ 943 79 81 78
ARETXABALETA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

E. MAZMELA

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 71 47 36



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327
ESKORIATZA

**Cuenta Joven
de Caja Laboral**
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.**
Zerbitzuetan
osatuena.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943- 715061

LENIZ

ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**



Industrias Olabbarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061

VILLAR

ileapaindegia

Tel. 71 50 42

ALDI

JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

goxotxiki



GOZOTEGIA

Hidalga, 3 • Tf. 943 715436
ESKORIATZA

Ondo pasau herriko jaietan!

ANGEL Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORIATZA

ETA ZUK ZEINEAZ EITTEN DOZU?.


Eta zenbat aldiz?, Eta noix?, Eta nun?, Eta zelako kalidadiaz?. Ba ez. Udiak ekarri leikien berotasun eta zuein mentalidade bero eta berde samarretatik kanpo, danoi gogora ekarritsuen temia sakondu barik euskeriena jorratutia gure neuke. Ze, itxuria danez, eta ale hontako atzerauko orrixetan agerketan dan moruen, Eskoitzan euskerien gainien einddan azkenengo enkuestako erresultauak ezte gureko litzakezen besteko onak.

Sarrittan, petrestuak topetan die: "...guk prohibiruta euki gaixuan eta..." "...eraztuna iphintten juskuen eta..." "...bai badakik ,gu Francon denporako umiak gaittuk eta..." etab.

Bai, konforme, egixa da zerbaiten gainien nehikua trauma haundixa sortu leikien metodo, kontesto, eta zirkunstantziak izen ziela, baina famelixetako bazkai guztietan,zela ero hala, aittaketan akabetan dan gerra hartako jeneral gailego irabazlia hil zala, laister hogetabost urte etorriko die, eta denpora hortan gure ohittura asko aldatittugu, zeatik,barrez, ez ta igoal pasetan euskeriaz? Eta zeatik lotutetsou Franco euskeriai, euskeran eta gainerakuetan ahazketia gure bou militar honen obria?

Gainera, gehixau esango nauke. Pentsetan dot danope nehikua hipokritak garela euskeriaz. Gure inguruen beiketan bou, zer ikusten

dou? Inori etxako bururatuko euskeraz ez tan izen bat iphinttia bere seme-alaba ero txakurrai, San Pedruetan aurten atara dan pegatinia eruengo dau bularrien, "...gure dana baina euskeraz..." etab. , euskal jaixen folkloriko/a jantziko da, "Bai euskarari" kanpainako kamisetak eruengoittu, ikastolako ferixan parte hartuko dau, baina, eta zer euskeriak ezpou eitten?



Atzen batien, batek dauko sentsazinua euskeria atso-agure, ume eta txakurrendako, " altza porru" "Gora Euskadi" "agur" "egunon", "eskerrik asko" esateko, ero erderaz gabitzenien euskal ber bak sartzeko baino eztauela balixo "...estuvimos en el "txoko"...", "...le vi con una "mox korra"...", "...vaya neskatila"...", ero musien, batek pariak eta jokua daukela esateko erabilten dan formularako "...pariak (jokua).bai, bai, bai, ez".

Eta hemen aittatittuten kasuak, eta beste asko, ejenpluak besteik ezte. Eta folkloria izetetik pasetan eztienak gainera. Hola bizi dana ez ta euskeraz bizi.

Eta defizit hori, gehixen bat, jente helduen artien emuten da, 18ttik 65 urterarterainokuen tarte hortan, hau da, erozein soziedade eutsi, bideratu eta dirijiruten dauien edadeko jentien artien.

Baina tristiena ez ta hori. Tristiena da kasu askotan 15-18 urtera ailegetarakuen euskeraz eittetik datozen neskatila mutikuape erderaz eitten hasten diela, eta hola ez tau gauzia zuzenketaik.

Esate baterako, denpora asko ez ta Aihuntamentu barrixa elejiru douna, eta bat kontuak ataraten hasten bada ikusi leike 11tik 10rek, gutxienez, euskeraz dakixiela. Barrez, hurrengoko lau urtetako sesinuen artien zenbat izengo die euskeraz? Ero,asko jota, batek eztaixen petrestuaz danak erderaz eingo ete daue? Ez litxaket bape estrainauko hau azkenengua pasauko balitz. Hori bai, gero, "Euskara Merkataritzara" moruko kanpainak (efektibuak?) urtengo daue euskera mailan gastu bat justifiketako. Ejenplo ederra topau dotela pentsetan dot gure herrixen portaeria eta situazinua erreflejetako euskerien inguruen, eta okasino ezinhobia dala uste dot aurrerakuen korrejiruteko haleginak eitteko.Hala ba, JARDUN!

D.M.III.na.



ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA
Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez, Monika Belastegi.
Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856
"ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria
Euskara Batzordea



TXIKIRRI-TXIKIRRI MENDI MARTXAK AURREKO MARKA HAUTSI ZUEN

Orain bi urte ospatutako edizioak lortutako arrakasta hobetuz burutu zen pasa den Ekainaren 20an Hildako Mendizale eskoriatzarren omenez antolatzen den Txikirri Txikirri mendi ibilaldia. Ibilbidea 97an egindako lehen edizioaren antzekoa izan zen, baina, Eskoriatzatik irten eta Mendiola eta Kurtzebarrirantz joanaz, eta eguraldiak, egunaren haseran batez ere gehiegi lagundu ez zuen arren, horrelako ekintza baterako aproposagoa izan litekeen giroa utzi zuen arratsalderako, lainotua eta freskoa, udaberri girokoa azken batean.



Nekatu itxura gabe heldu ziren zenbaitzu irrifartsu plazara.

Beti ere izaten da despistaturen bat edo beste, baina partehartzaile gehienek arazo latzik gabe bukatu zuten martxa, eta baita gustora edan ere antolatzaileek helmugan banatu zituzten txanpain botilak.

Lehenengo partehartzailea goizeko hamaika t'erdiretan agertu omen zen plazan, ibilbidea lau ordu t'erditan burutuz, baina horrek beste

meritu badu azkenengoen ibili behar izan zituzten hamar ordu t'erdia aguantatu izanak.

Denera 208 parte-hartzaile irten ziren plazatik, gehientsuenak herrikoak gainera, eta beraien artean gazte, heldu, gizon nahiz emakume ikus zitekeen.

Kuriositateen artean aipatzekoa da zenbait kanpotar ere egon zela

(inguruko herritako mendizaleei despreziorik egin gabe, noski) Iruñea, Madril edo ta Alemaniatic etorritakoak adibidez.

Bejondeiela bada benetan bai partehartzaileei eta nola ez, baita antolatzaile lanetan fin egon ziren Eskoriatzako Mendi Taldeko kideei ere!

ETA EKINTZEKIN JARRAITZEKO, UZTAILEAN AKANPADA ALABITTAN

Hala ere, Txikirri-txikirri mendi martxan izandako arrakastaren gozotan lo gelditu barik, mendi taldeko kideek ez diote udara partean izaten duten beste zitatako bati bizkarra eman, fin-fin, Uztailaren 23, 24 eta 25ean Alabittan egingo den akanpada martxan jar-tzeko lanetan hasi bait dira jadanik.



Hau asko animatzen da akanpadara joaten.

Udalaren laguntza jasotzen duen akanpada honetara joan ahal izateko 500 pezetaren truke Namaste bedar-dendan edo eta Kultur Etxean izena eman besterik ez daukazue. Akan-pada hau orain zortzi bat urte dela hasi zen antolatzen gure herrian, eta bere

helburua haurrak eta jende gaztea gure mendietara gerturatu eta hobeto ezagutzen laguntzea da.

Lehenengoa Degurixako zelaietan egin zen arren, beste guztiak Alabittan egin izan dira, eta orain arte ospatu diren kanpaldietan,

mendi orientazioari buruzko ikas-tarotxoak, inguruko koba-zuloetara bixitak, umeen-tzako jokuak eta beste hain-bat gauza egin izan dira.

Aurten gainera badirudi sortu berri den Eskoriatzako Gazte Asanbladak (EGAS) ere bere bultzadaxoa eman nahi diola ekintzari, eta talde hontako kide batzuk laguntzen ariko omen dira.

Beraz, badakizue, asteburua ederto pasatzeko aukera duzue gazte zein helduek datorren Uztailaren 23tik 25 era bitartean, herritik (edo inguruetatik mugitu ere egin gabe!

DEGURIXAKO XXVI. AKANPADA

Hilabete hau gaztetxo-entzat bereziki antolatutako ekintzez lepo eginda dagoen arren, ezin dugu ahaztu Eskoriatzako Mendi Taldeak eta Udalak antolatutako Alabittako akanpadaz aparte, asteburu berean, Degurixan ere egongo dela zer egina.

Izan ere, pasa den hileko Ze Barrin aurreratu genuen lez hilaren 23, 24 eta 25ean, eta helburu bezela elbarrituen integrazioa bultzatu asmoz, XXVI. edizioa beteko duen akanpada egingo bait da. Izenemate epea aspaldi bukatua dagoen arren, lerro hauen bitartez bertara hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi dizue Ze Barrik, antolatzaileek hogeitasei urtez egindako lana eta ekintza hontan egoten den giroa gertuagotik ezagutu dezazuen.

Eta badaezpada, he-mentxe dioa antolatzaileen kontaktu telefona:

943 71 42 92

ALKATE ALDAKETA UZTAILAREN 3AN

San Pedro jaiak pasa orduko, uztailaren 3an, egin zen alkate aldaketa. Horrenbestez, Manu Villarrek, hamabi urtez alkate izan zenak, berelekua utzi zion Edorta Zubizarretari, alkatetzan zorte ona izan dezala opatuz.

Hilabete honetan hurrengo lau urtetarako landu beharreko programa prestatzen aritu dira alkate eta zinegotzi berriak. Oraindik zinegotziek zein alorren ardura izango duten zehazteke dute. Ikasturte berriarekin batera, udaletxean ere orduan ekingo diote seriotasunez eta gogotsu lanean.

UDALEKUAK 99

130 hurrek hartu dute parte aurtengo udalekuetan eta haur horientzat jolasak eta ekintzak aurrera eramateko ardura hama-zazpi begiralek izan dute. Begirale hauek aurreko urteetakoak baino gazteagoak izan arren, gogoz eta arduratsu bete dute euren lana eta



Goian, herizain eta guzti san Ferminetako entziarria. Behean, txokolatzeko pastela, ze goxoa!

honen arrazoa izan liteke beraiek ere gazteagoak zirenean udalekuetan parte hartu duten haurrak izan zirela. Horregatik, ondo baino hobeto ezagutzen dute udalekuen mundua. Orain, haur zirenean gustukoak zituzten ekintzak gauzatzen ahalegindu dira begirale izan diren aldetik.

Lau ekintza nagusi ospatu dituzte aurtengo udalekuetan: San Fermin Eguna, Euskararen Eguna, Mozorro Eguna eta Azken Jaia. Mozorro Eguna izan da aurtengo ekintza berrietako bat. Egun honetan mozorro festa egin zuten. Bestalde, urtero egiten diren



ekintza arrakastatsuenak ere errepikatatu dira haurren zorionerako: Uraren Eguna, mendi irteerak, piszinara buel-tatxoak...

Uztailaren 23an, Azken Jaiarekin eman zitzaien amaiera aurtengo udalekuei. Jai honetan ere gustura ibili ziren haurrak herriko plazan ipini ziren postuetan jolas egiten. Baina, batez ere, "Begiraleari tiro" izeneko postuan ikusi genuen haur ilara handiena. Eskoriatzako haurrak argiak dira gero, postu hau aprobe-txatu zuten behingoz behintzat begiraleak euren mendean hartze-ko! Jaia eguerdian amaitu zen eta bai haurrak eta baita begiraleek ere penaz elkar agurtu zuten. Hurrengo urtean gehiago!



Edortak Manuri, hamabi urtez egindako lana eskertuz, euskaldun makila oparitu zion uztailaren 3ko ekitaldian. Bilkura gela jendez gainezka ikus daiteke.

EUSKERAREN INGURUKONEURKETAK

KALE ERABILERA

Neurketa asteazken arratsalde eta larunbat goiz eta arratsalde egin zen ekainaren 3. astean.





Asteazkenean 206 pertsona neurtu ziren eta hauetatik 60 pertsonak egin zuten euskaraz. Haurrekin zihoazen erdiek euskaraz egiten ahalegintzen ziren eta umeek ere euskaraz erantzuten zuten.

Taldeetan zihoan jendeak erdaraz hitz egiteko joera zuen eta adin taldeak nahastuta ere erdarara jotzen zen.

Zapatuan 306 pertsona neurtu genituen goiz eta arratsalde. Goizez gehienak bikotetan zihoazen eta ia erdiek euskaraz egiten zuten. Laukotetan eta boskotetan berriz %100 erdaraz egiten zuten. Talde handietan erdiek baino gehiagok erdaraz egiten zuten.

Arratsalde beriz emakumeek gehiago hitz egin zuten gazteleraz gizonaz baino, gizonazkoek ia erdiek euskaraz egin baitzuten eta emakumezkoek berriz gehienek erdaraz.

Guztira 513 pertsona hartu dira kontutan eta askok euskaraz jakinda ere erdaraz egiten zutela ikusi da.



ZENTSUKO DATUEN GARAPENA

1991ko datuen eskualdeko laburpena

Erdaldun helebakarek behera egin dute herri guztietan Eskoriatzan izan ezik.

Ama hizkuntza euskara dutenak gutxitu egin dira. Gazteen artean 2 ama hizkuntza dituztenak gora egin dute.

Euskaldun kopuru handienak 65 urtetik gora eta 15 urtetik behera daude.


Erdaldun elebakarren portzentairik handiena Arrasatek (%37,3) eta Eskoriatzak (%36,1) dute.

Eskualdean etxean gaztelera gehien erabiltzen dutenak (batz besteko portzentaiaren ginetik) Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza dira.

HIZKUNTZA BILAKAERA	91		96		HIZKUNTZA GAITASUNA	81	86	91	96
	91	96	91	96					
Euskaldun zaharrak	44,8	43,2			Euskaldunak	47,8	50,4	52,1	56,2
Jatorriz elebidunak	2,5	3,8			Elebidun hartzaileak	18,2	9,9	11,8	11
Euskaldun berriak	4,8	9,2			Erdaldunak	34	39,7	36,1	32,8
Partzialki euskaldun berriak	8,6	8,3							
Partzialki eraldunak	3,2	2,7			AMA HIZKUNTZA	81	86	91	96
Gutziz eraldunak	1,3	1,7			Euskera		49,3	48,6	45,9
Erdaldun zaharrak	34,8	31,3			Biak		5,3	3,2	5,3
					Gaztelera		44,9	46,9	47,2
					Besteak		0,5	1,3	1,6

San Pedro Jaiak 99

Hamaika Argazkitan



III. Autokros lasterketa, San Pedro Jaiak Saria Jon Diazek irabazi zuen.

Irudi ikusgarriak Ederlan pareko zelaian ikusi genituenak.





Pregoneroa Unai Inurrategi pelotaria izan dugu. Hona hemen ofizialki jaii hasiera eman zitzaien unea.



Nagusien Tanborradak urteroko maila eman du.

Umeenean berriz, partaidetza txikiagoa izan da.





Uztailaren 1ean Bakailo Lehiaketa egon zen. Parteartzaileek lan txukuna egin zuten. Bakailoa goxo goxo prestatzeko, mimoz tratatu behar da, begira bestela!

Irabazlea, Xabier Otamendi Eskoriatzarra izan genuen.



Aurten herri kirolak ere izan ditugu. Punta puntako kirolariak izan genituen: Saralegi anai arrebak, Goenatxo ...

“Inshala” diskoa aurkeztuz izan genituen Alaitz eta Maider Oiartzuar neska panpoxa hauek. Eskoriatzarrekin zuten zitaz kunplitu zuten, Japoniara arrakasta bila giran abiatu aurretik.




Umeentzako jolasetan batzuk jolas egiteaz gain hamarretakoa egiteko aprobeztatu zuten. Sagar hauei gustora egin zieten horzka.

Oharra: San Pedroetako argazki gehienak Harik utzi dizkigu, norbaitek hauek lortzeko interesa badauka, AZKOAGA estankoan izango ditu ikusgai.

Gazte Asanbladaren ekimenez, Euskal Jai oso arrakastatsuak!

Gazte Asanbladak eskerrak eman nahi dizkie egun hau ospatzen lagundu zuten bolondresei.

Gazte Asanbladak horrelako ekintzak egiten jarraitzeko asmoa dauka, beraz, hurrengoan ere eskertuko da laguntzasun hori. Azken finean, guztion artean egiten diren jaiak izaten baitira arrakastatsuenak.



Maixabel Goikolea:

<< Herrialde honen etorkizuna ez dago kanpotik etorriko diren gauzetan, baizik eta, aurrera egiteko ahalmena izan dezaten, bertako jendea, sistema eta baliabideak dira eraginkor egin behar direnak>>.



Hogeita zortzi urteko eskoriatzar hau lanbidez sendagilea da, baina, bizitzan karrera baino gauza gehiago egiteko denbora eman dio, sendatzeaz gain, osasun hezitzaile lanak ere egin omen baititu Hego Amerika aldean. Oraingoan, Eskoriatzarrok Munduan ataleko beste protagonistetariko bat aurkezten dizuegu; Berak, Ekuador iparraldeko oihan galduan "doctora Queen"n antzera izandako esperientzia aberasgarritzat jotzen du. Urte hauetan zehar Maixabelek isilean egin duen lana nolabait ezagutarazteko modua izan bedi jarraian luzatzen dizuegun elkarrizketa.

Zein eratako proiektuan hartu duzu parte? Zure lana zein izan da?

Oinarrizko Osasun Laguntza emateko proiektu batean aritu naiz, Komunitate bati osasun laguntza nola eskaini irakasten. Hauxe izan zen hasierako planteamendua:<< bertan bizi den jendeari formazioa ematea, beraiek ere, medikuez gain, laguntza hori emateko kapazitatea izan dezaten. Horrela, eremu zabal honetako osasun beharrei hobeto erantzuteko>>.

Beraz, bertako pertsona batzuk izen eman zuten eta pertsona hauei OSASUN PROMOTOREAK deitu diegu. Mugimendu honen jatorria Mexikon dago baina dagoeneko, osasun zerbitzu ofiziala iristen ez den leku gehienetan indar handia hartu dute.

Nire lana, berriz, jende guzti honi heziketa bat ematea izan da eta ge-ro, noski, egiten zuten lana gainbegiratzea. Herrialde horretako jendeari gisa honetako formazioa ematea oso garrantzitsua da; Herrialde honen etorkizuna ez dago kanpotik etorriko

diren gauzetan, baizik eta, aurrera egiteko ahalmena izan dezaten, bertako jendea, sistema eta baliabideak dira eraginkor egin behar direnak.

Beraz, mediku lanetan baino gehiago irakasle gisa ihardun duzu?

Bai. Promotore hauei kurtsuak eskaini dizkiegu eta bertan, gripea, diarrea meningitis... bezalako gaixotasunak nola tratatu ikasi dute. Horiei aurre egiteko beharrezko sendagaiak ere ematen genizkien. Lehenengo al-dian dohainik eta beraiek prezio egoki batean saltzen zituzten komunitatean.

Horrela, diru horrekin sendagai gehiago

erostera etortzen ziren. Honekin lortu dena izan da, lau urtetan autogestiorako sistema bat eratzea eta dagoeneko sendagaiak erosteko ez dute kanpoko diruaren beharrik.

Duela hiru urte t'erdi joan zinen Ekuadorrera. Zein aurrerapen nabaritu duzu ordutik?

Aurrerapenak poliki ematen ari dira. Aipagarrienetako bat, agian, jada hasi direla osasun gaietarako eta behar



humanitarioetarako euren kabuz antolatzen. Hala nola; Dirua maneiatu eta administratzeko orduan, autonomoak sentitzen dira eta egiten duten lana asko baloratzen dute. Gainera, jada badaukate juridikoki Osasun Ministeritzak errekonozitutako elkarte bat, Sandi Yura izenekoa.

Promotoreek ere kurtsoetara joaten jarraitu dute eta orain, zituzten oinarriko ezagupenez gain, beste gauza asko egiteko gai dira. Pertsona hauek benetan meritu handia daukate. Gehienak pertsona

baloratzen dute, lehen ez zeukaten zerbait orain badaukatelako.

Sandi Yura, oinarriko osasun laguntza ematen duen komunitateko elkarte.

Kurtsoei esker promotoreak gauza dira enpasteak egiteko.



dituztela sinesten dute esaterako. Gauza bitxiak eta sinesgaitzak dira guretzat, baina, hango errealitatea da. Oihana bizitzeko era

ezberdina dute.

Zerk harritu zintuen gehien Ekuadorrera heldu zinean?

Denak harritu ninduen: ibaian bainatu beharra, lurlean lo egitea, guayusa hartzeko goizeko 4etan iratzartzea... haienztzat gauza simpleak dira baina nik ez

nekien nola jokatu.

Beste mundu bat da, ez da pentsaera ezberdin bat soilik, pentsamendua estrukturatzeko era ezberdina dute beraiek, erabat ezberdina guk dugunarekin alderatuz. Mila gauzatan antzematen da hori.

Kuriosoa da esaterako, gaixotasunekin duten pentsamendua. Hauentzat gaixotasun batzuk naturalak dira, beste batzuk, ordea, aztiak edo brujoek bidaltzen dizkie. Brujoak gaixotasuna bidaltzen jarraitzen badu, mendekua hartzen dute eta nahiz eta herritar baketsuak izan, honekin guztiarekin bukatzeko norbait hil behar izaten dute. Ni egon naizen denboran esaterako, hiru pertsona garbitu dituzte arrazoi honengatik. Eta gero gainera, lasai asko kontatzen dizute, gauza bitxia da benetan!.

Zenbait sinesmen ere oso sustraituak dituzte, boak eta puma bezelako animaliek pertsonen izpirituak hartzen

Zein puntu arte integratu daiteke horrelako komunitate batean?

Integratu, integratzen zara. Nik hango hizkuntza (kitxua) hitz egiten dut, kultura konpartitzen dut, ohiturak... baina inoiz ez zara beraietako bat izango. Dena den, ez dakit hori zenbateraino den beharrezkoa, zeren gu bezalako jendea denbora baterako joaten gara, hango egoera hobetzen laguntzera. Ematen diezun laguntzarekin gustura hartzen bazaituzte nahikoa da. Garrantzitsuena taldeko lanean hobetzen joatea da eta ez norberaren ongizatea bilatzea.

Bertako hizkuntza "kitxua" ikastea beharrezkoa izan da zuretzat?

Bai, indigenekin lan egiteko bai. Etxeetan kitxua erabiltzen dute eta hizkuntza horrekin gustura sentitzen dira, hobeto esplikatzeko dira.

Hemendik horrelako lekuetara lanera doan mediku bati zer portatzen dio esperientzia honek?

Hemengo sistemari dagokionez, ezer gutxi. Asko atzeratzen zara. Baina, medikuntza egiteko beste modu bat ikasten duzu. Niretzat pertsonalki oso aberasgarria izan da esperientzia hau.

Apirilean bueltatu zinen. Itzultzeko asmorik bai?

Ez dakit. Nire asmoa orain ikastea da. Londresera joan nahi dut Garapenean dauden herrialdeetako Osasun Publikoa ikastera.



nagusiak dira, beraien lana eta familia mantendu behar dituztenak eta, hala ere, denbora guzti honetan proiektuarekin aurrera jarraitu dute eta hori oso positiboa da.

Guzti hau benetan beharrezkoa ikusten al dute pertsona horiek?

Ez dakit. Nik uste dut hobeto egongo lirakeela han inor sartu ez balitz. Baina, zoritxarrez zibilizazioaren aurrerapena ezin da ukatu eta gaur egun, oihan horretan, zoritxarrez, ibaiak, zuhaitzak, eta espezie aberatsak egoteaz gain, kanpoko multinazionalen petrolio eta koka blokeak ere aurki ditzakegu. Jende honek jada ezin du libre bizi. Gure kurtsoetan egoera hori tratatzen ere laguntzen diegu. Honen aurrean, beraien eskubideak zeintzuk diren erakusten diegu.

Bestalde, gaixotasun batzuentzat bazituzten beraiek soluzioak, baina, orain gaixotasun asko kanpotik etorri zaizkie eta horiek tratatzen ere lagundu diegu. Aspektu honetan gure lana

*Gustora ibili al zara udalekuetan?
Zein jolas izan duzu gustukoen?*




Jon Morales eta Aitor Akizu

- Bai, oso gustora!
- Play back, pistinara joatea, polideportiboan ibiltzea kirolak egiten. Gauza asko gustatu zaizkigu.



Maite de Jesus Gutierrez
(5 urte)

- Bai, oso gustora.
- Jolastea eta pistinara joatea.



Eli Gabilondo
(bederatzi urte)

- Oso pozik ibili naiz aurten udalekuetan.
- Pistinara joatea eta Uraren Eguna.



Gadea Errasti
(zortzi urte)

- Bai, ni oso pozik ibili naiz.
- Mermelada eta txokolatezko pastelak egitea asko gustatu zait.



Itsaso Villar
(17 urte, begiralea)

- Bai, hurrek ondo pasa dute eta nik ere bai eurekin.
- Eurak gehien disfrutatu duten jokuetan: painuelito...



ESKERRAK ESKORIATZAKO HERRIARI!!

URTE ASKO EMAN DITU ESKORIATZAKO UDALAK PLANTEAMENDU ETA LAN FUNTZIONAMENDU BERA AURRERA ERAMANEZ. ERA BEREAN, URTE ASKO DARAMA PERTSONA ASKOK AHAL DUEN HEINEAN ALDAKETA BAT ALDARRIKATZEN. ETA ALDAKETAREN MOMENTU HORI HELDU DELA USTE DUGU. HAIZE BERRIAK EKARRI NAHI GENITUEN ESKORIATZAKO HERRIRA, HORI IZAN DA GURE ASMOA HAUTESKUNDE KANPAINAN ZE HAR ETA HERRITAR ASKO AGERTU DA GURE ASMOEN ALDE. PLANTEAMENDU BERRIAK, ILUSIO BERRIAK ETA PERTSONA BERRIAK BEHAR ZITUEN UDALETXEAK ETA HORI POSIBLE IZANGO DA HEMENDIK AURRERA.

HAUTESKUNDE TAKO EMAITZAK IKUSI ONDOREN, EZ ZAIGU BESTERIK BURURATZEN JENDEARI ESATEKO, ESKERRAK EMAN ETA HEMENDIK AURRERA DENEN LAGUNTZA ESKATZEA BAINO EZ. GUK BADA KIGU ZER FALTA ZAION HERRIARI, BAINA ZUEK ERE BAI. HORREGATIK, ZUEK IZAN BEHAR DUZUE UDALETXEKO PARTE GARRANTZITSU BAT, GURE LAN ILDOA ZUZENDU ETA EGINIKO LANAREN EBALUATZAILE. ZUEN PROPOSAMENEN ZAI GAUDE, EZIN DUGU HITZ EMAN DENAK BETEKO DITUGUNIK, BAINA GUTXIENIK AZTERTUAK ETA ERANTZUNAK IZANGO DIRELA, HORTAZ ZIUR EGON.

BUKATZEKO, HASIERAN ESANDAKOA, ESKERRAK EMAN GUGAN ETA GURE PROPOSAMENEN SINESTU DUZUENOI ETA HERRI GUZTIARI OROAR. ORAIN LANEAN HASTEKO ORDUA DA, ETA EA LAU URTE BARRU GAUZA BERA ESATEKO AUKERA DUGUN, LAN ONA EGIN DUGUNAREN SEINALE IZANGO BAITA.

ESKORIATZAKO EUSKAL HERRITARROK

BEHARREZKO

TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 943-714407
 Udal Bulegoak 943-714532
 Udaltzaingoa 943-714407
 Euskaltegia 943-792168
 Kultur-Etxea 943-714688
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688
 Kiroletxea 943-715328
 Liburutegia 943-714688
 Luis Eceiza 943-714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
 Almen 943-714964
 Museo-Eskola 943-714688
Ze Barri? 943-715434
 Talde Antimilitarista 943-715028
 Irakasle Eskola 943-714157
 Osakidetza 943-714452
 Telesko 943-714917
 Taxia 943-714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
 Renfe (Zumarraga) 943-721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 902 101 210
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 112

UDAKO OPORRALDIAK

* Uda partean komeni da dokumentazioa eta seguruak aldean edukitzea. Gazte edo ikasle txartela eta kanpista edo aterpetxe txartela edukiz gero abantailak eduki ditzakezue. Behar den dokumentazioa eta non atera daitekeen jakiteko, pasa zaitez Gazte Bulegotik.

KONTZIENZI ERAGOZPENA

* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

DIRULAGUNTZAK

* Administrazio Publikoaren inguruan heziketa eta ikerketarako bekak, zuzenbidea, zientzia politikoak, soziologia, pedagogia, psikologia, filologia eta goi mailako inginerutzan lizentziatuentzat. Epea: abuztuak 9.

* Gipuzkoako Agiritegi Orokorrak Gipuzkoari buruzko ikerketa historikoak egiteko 2 beka eskuratzeko deialdia egin du. Azken lau urtetan unibertsitateko goi titulua lortu dutenei zuzendua. Epea: irailak 1.

LANA

* Disneyland Parisen lan egiteko eskaintza jaso dugu; garbiketa, harrera, salmenta, atrakzioetan... aritzeko pertsonak behar dira.

* Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez Arrasateko Gazte Bulegotik.

LEHIAKETAK

* Portugaleteko Udalak "Portugalete Uri Urena" IX. Ipuin Lehiaketarako deia egin du. 14-30 urte arteko idazleek parte hartu ahal izango dute, euskaraz zein gaztelerazko lanekin eta 6-12 orri arteko luzapenarekin. Epea: irailak 6.

* Zumarraga-Urretxuko Udalek, urteroko lehiaketak antolatuta dituzte: pintura, komiki, bertso-paper eta argazki lehiaketa. Epea: irailak 10.

* "Emakumeak kontari" VI. narrazio lehiaketa Bilboko Emakume Zerbitzuaren eskutik. 18 urtetik gorako emakumeei zuzendua, gai librea eta 5-12 orri bitarteko luzerako narrazio originalak behar dute izan. Epea: irailak 30.

* Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatua, X. Argazki lehiaketa "Gazteak eta 2000. Urtea" lemapean. Bi kategorია: Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak alde batetik eta 19-35 urte arteko edozein pertsona bestetik. Zuri beltzean nahiz koloretan, beste lehiaketaren baten saritu edo noizbait argitaratu gabeak beharko dute. Epea: urriak 8.

EZKONTZAK

Jose Luis Gomez Nieto eta Marimar Colillas Gil
 99-6-26
 Jose Vicente Barriocanal Gutierrez eta Teresa Simal
 99-7-3
 Imanol Arriolabengoa eta Olatz Beitia
 99-7-10
 Oscar Urquijo eta Idoia Idigoras
 99-7-17

JAIOTZAK

Eneko Azkargorta Santamaria 99-6-4
 Mikel Corbal Blanco 99-6-24
 Itziar Uramue Olazabal 99-7-4
 Olatz Uriarte Bilbao 99-7-8

AZKOAGA

Estankoa

Zure zerbitzura

EROSLE

HARATEGIA,
 FRUTATEGIA eta
 BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
 Tfnoa: 943 714546

Barandiaran
 oinetakoak

943-71 49 70

**BAZAR
 LEINTZ**

*Opariak, Etxeko
 tresnak, jostailuak*

Olazar, 8 Tf. 610 905576

ZE BARRI?-ren 32. Alea duzu uztailleko hilabete honetan eusku hartean jaso duzuna. Gure herri aldizkariaren 3.urtemuga Ekainean isilean bete zen honetan, aldizkariaren kolaboratzaile gisa gogoeta egitera animatu naiz gure bertute eta zailtasunen berri emateko.

Herri aldizkariak azken hamar urteotan izan duten hazkundera ikusita eta euskarari ematen dioten bultzada garrantzitsua kontutan hartuta erein zuen ZE BARRI? Urlatik Landetararen lehen alea 1996ko Ekainean Axtrokik eta Pagedarrek, Eskoriatza eta Gatzagako euskara taldeek. Arrasate Press, herri aldizkariaren aintzindaria eta honen ondoren sortutako beste batzuen aldean haurtxo txikia genuen ZE BARRI?: zortzi orrialde, hilean behin ateratzen genuena... baina haurrik txikienak ere bere bielekua ematen du ez pentsa.

Hiru urte hauetan, ordea, hazi hura urtetik urtera loratuz joan da eta fruitu ugari eta berritasunik ere eskaini du, nabarituko zenuten; hamasei orrialde, koloretako portada, gai garrantzitsuenen errerportaiak, atal berriak... hauek guztiak, egin dugun lanaz eta lortutako emaitzez pozik egoteko arrazoiak dira. Baina, duela hiru urte ereindako hazi horrek emaitza onak ematen jarraitu dezan, aldiro-aldiro hazi berriak erein behar dira eta hori da, agian, ZE BARRI?n dihardugunok somatzen dugun falta. Duela hiru urte aldizkaria sortu zenetik ia jende berdinak jarraitzen du bertan, kolaborazioak nahiko urriak dira, eta aldizkari hau sortzea ahalbidetu zuten euskara taldeen babesa ere dexente ahuldu da. Aurreko hilean ez genuen aldizkaririk atera eta oraingoan ere kostata atera dugu, ez nuke pentsatu nahi uztailleko ZE BARRI? jasoko den azken uzta izango denik.

Nik uste dut ZE BARRI? herri aldizkaria den aldetik, Eskoriatzarentzat funtzio garrantzitsua betetzen duela, bertako kontuez informatzen eta herritarrok ditugun kezkez informatu nahi duelako. Baina, aldizkari hau herriari zuzendua dagoen aldetik, herriak berak eraiki beharko lukeela ere iruditzen zait. Herri honetan hainbat talde ditugu: Axtroki, Amuska, Insumiso taldea, Gazte Asanblada, Gorosarri dantza taldea... talde hauek guztiek, burutzen dituzten ekintzekin, herri hau mugiarazten dute eta herri pasibo bat ez bilakatzen ahalegintzen dira. ZE BARRI?ri, ordea, kosta egiten zaio pasibotasun horrekin apurtzen, jendeak aldizkaria jaso, irakurri, komentatu bai, baina, bertan parte hartzeko urratsik ez duelako ematen. Ez da hain zaila aldizkariari laguntzea, ateak edonorrentzat daude zabalik. Bertan dihardugunok prest gaude, kritikak entzutera, lagundu nahi duenari esku bat luzatzera, maketatzen ikasi nahi duenari irakastera... horretarako ineteresa eta gogoia eduki behar dira. Nik egiten dudana azken gogoeta da, horrela ezin dugula jarraitu eta egoera honek aldaketaren bat izan beharko duela. Izan ere, azken finean, ba al da ezer zentzugabeagorik interesa galdu duen aldizkari bat argitaratzen jarraitzea baino.

Lorea
ZE BARRI? ko kolaboratzailea

**Golo gazte
moda**

Tel.. 943- 71 45 61

R E L E

Faustino Legazpia

Tel. 943- 71 40 72

Benta Motz

Taberna

Tel. 943- 71 48 22

**Txalaparta
Jatetxea**

Tel.- 943- 71 50 46

Aldi/bi

JAIOBERRIAK GARA

ETA AURRETIK GOAZ

BIGARREN ESKUKO AUTOAK SALTZEN DITUGU



Grupo
Nortekar

BILBOCASION

Jaen, 11
Tel.: 94 410 16 61
BILBO

AUCASA

P. Larramendi, 10
Tel.: 94 410 39 39
BILBO

ALDIK

Mallabiena auzoa, 4
Tel.: 94 681 67 66
IURRETA

ALDIBI

Zigarrola, 1
Tel.: 943 71 20 02
ARRASATE

ALDIBI

Olaso pol., z/g
Tel.: 943 74 20 37
ELGOIBAR

ALDIKAR ALMOVIL

Colon pas., 27
Tel.: 943 27 09 99
DONOSTIA

ALDIKAR ALMOVIL

Oria etorbidea, 6
Tel.: 943 27 09 99
LASARTE